# MATERIAL BERRIAK

## Nekazaritza Salmenta Teknikak



Irakaslearen apunteak

Laneki Jakinbai 2018 — 2021/01/29

## Akuoponia Teknikak



Akuikultura eta nekazaritza hidroponikoa uztartzen dituen Akuaponia teknikaren xehetasunak.

Laneki Jakinbai 2018 — 2021/01/29

## Azaleko zimurtasunaren neurketa



Laneki Jakinbai 2018 — 2021/01/27

JAKINBAI ZIURTAGIRIA ★ OINARRIZKO EDUKIA ★

## Erkidegoaren garapena

Liburu honek Erkidegoaren Garapena lanbide-moduluaren edukiak lantzen ditu Animazio Soziokultural eta Turistikoa eta Genero Berdintasunaren Sustapena goi-mailako prestakuntza-zikloen barruan, hain zuzen, Zerbitzu Soziokulturalak eta Erkidegorako Zerbitzuak lanbide-familian. Aurrekoari eutsiz, autonomia-erkidegoen curriculum gehienek aurrez ikusten dituzten edukiei erreparatu die, curriculum nazionalak eskatzen dituen gutxieneko edukiak kontuan hartzeaz gain.

Euskalgintza — 2021/01/18

OINARRIZKO EDUKIA ★

## Sistema sekuentzial programagarriak

Liburu honetan Elektrizitatea eta Elektronika lanbide-arloko Automatizazioa eta Robotika Industriala goi-mailako heziketa-zikloko Sistema Sekuentzial Programagarrien modulu profesionaleko edukiak jorratzen dira. 11 unitate ditu, eta, bertan, 1581/2011 Errege Dekretuan (azaroaren 4koa, Automatizazioko eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknikari titulua ezarri eta gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituena) zehaztutako edukiak lantzen dira.

Euskalgintza — 2021/01/15

OINARRIZKO EDUKIA ★

## Neurketa- eta erregulazio-sistemak

Liburu honek Neurketa eta Erregulazio Sistemak lanbide-moduluko edukiak garatzen ditu. Modulu hori Elektrizitatea eta Elektronika lanbide-arloko Automatizazioko eta Robotika Industrialeko Goi Mailako Heziketa Zikloaren parte da. Liburuak 8 unitate ditu, eta horietan zehar azaroaren 4ko 1581/2011 Errege Dekretuan (Automatizazioko eta Robotika Industrialeko Goi Mailako Teknikariaren titulua ezarri eta gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituena) zehaztutako edukiak lantzen ditu.

Euskalgintza — 2021/01/12

OINARRIZKO EDUKIA ★

Deskargatu materiala: KLIK

# ODOO ITZULTZEKO LANTALDEA sortu dugu



Odoo

Kalitate neurketa: (4.4)

Odoo enpresa eta erakunde txikien kudeaketarako tresna informatikozko multzo libre bat da. Aurreko bertsioetan *OpenERP* esaten zitzaion, eta *TinyERP* ere bai lehenago.

ERP software mota honek enpresa edo erakunde baten datu gehienak kudeatzen ditu, bere jardunaren inguruko datu guztiak koordinatuz (igorri eta jasotako fakturak, kontabilitatea, proiektuen inguruko informazioa, bezero eta hornitzaileen informazioa, langileen inguruko informazioa, egutegia eta abar).[1]

ERP (Enpresa Baliabideen Plangintza; ingelesez: *Enterprise Resource Planing*) eta CRM (*Client Resource Management*) sistema batean oinarritzen den aplikazio modularra da Odoo. Bezero-zerbitzari eskema bati jarraitzen dizkioten osagai ezberdinak ditu eta LGPLv3 lizentzia askean zabaltzen da.

Transifex aplikazioan itzultzen da Odoo. Itzultzeko bideotutoriala: [hemen]

➢Itzulpena edonork egin dezake, %40 inguru itzulita dago, ikusi:




**ZATOZ ZU ERE LANTALDERA**

**Ostegunero, 12:00etatik 13:00etara**

**meet bidez**

**ANIMATU (izena eman Lanekin)**

# LP-DUALA EUSKARAZ

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza deialdia zabaldu da, LP-Duala euskaraz egiteko gastuak finantzatuko zaizkie Bizkaiko lantokiei.

•Deialdia: Testu osoa (BAO. 245 Zk. 2020ko abenduak 22, Asteartea - Bizkaiko Foru Aldundiaren 124/2020 FORU DEKRETUA) eskuratu hemen

•Eskaerak egiteko epemuga: **otsailak 15**

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA **BAO**

245. zk. 2020, abenduak 22. Asteartea 3. orr.

**2021EKO EKITALDIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN DUTEN MERKATARITZA-SOZIETATEEI, KOOPERATIBA-SOZIETATEEI, ENPRESABURU INDIBIDUALEI ETA PROFESIONALEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUAK ETA DEIALDIA**

I. TITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. oinarria.—*Dirulaguntzaren xedea***

1. Hauek izango dira dirulaguntzon xede:

a) 2021eko ekitaldian enpresa-munduan euskararen erabilera sustatzeko Bizkaiko Lurralde Historikoan egingo diren planak.

b) 2021eko ekitaldian Lantokiko Prestakuntza modulua euskaraz egiteko aukera eskaintzeak dakartzan gastuen finantzaketa.

Laguntza hauen helburua da honako hauek euskaraz egiteko aukera eskaintzeko eskatzaileek egindako hainbat gastu finantzatzea:

1) Lantokiko Prestakuntza-modulua, 2003ko uztailaren 8ko 156/2003 Dekretuak, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloen baitan Lantokiko Prestakuntza Modulua egiteko modua arautzen duenak, xedatutakoaren araberakoa.

2) Modalitate dualean egindako prestakuntza, 2015eko ekainaren 2ko 83/2015 Dekretuak, Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, xedatutakoaren araberakoa.

# 2021 URTEKO BALORAZIOA

## Jakinbai.eus erabilera datuak




Saio kopurua
29.425

Bisita kopurua
219.531

## Hezíraul.eus erabilera datuak




Saio kopurua
6.599

Bisita kopurua
16.728

jknb+

# 2021 URTEKO BALORAZIOA

| Jakinbai.eus web gunearen erabilgarritasuna | Web guneko ikasmaterialaren kalitatea | Web guneko ikasmaterialen euskara kalitatea | Web guneko ikasmaterialaren erabilera ikasgelan | Laneki Lanbide Heziketa euskaratzeko proiektuaren beharra |
|---|---|---|---|---|
| 7,41 | 7,32 | 8,14 | 7,64 | 9,27 |

